

Asteartea, maiatzak 14:

Gasteizen 19:00etan Ilian Papek hitzaldia eskainiko du Aldabe gizartetxean.

Arbizun berriz, agerraldia egingo dute Sakanako hainbat udalek, BDZ ekimenari sustengua emateko.

Eta Bilbon gastronomia tailerra izango da Hikateneoan 18:00etan.

Baztanen, amaitzeko, Porrotxen bisita izango dute arratsaldean eta 20:00etan Baztango eragileek palestinarrei elkartasunez agerraldia egingo dute.

Asteazkena, maiatzak 15:

-Iruñean, UPNAn 11:30etan Jonh Bennet (Eskoziako BDS mugimenduaren ordezkaria eta ikaslea) eta Ilian Papek hitzaldia eskainiko dute eta 20:30ean berriz, Iruñeko Gurutze Plaza institutuan.

-Elizondon, «Preso politikoak Palestinan eta Euskal Herrian» hitzaldia izango da 20:00etan.

Osteguna, maiatzak 16:

-Bilbon, Boikot Akademikoaren inguruko mintegiaren baitan, 09:30etatik 11:30etara Aparheith sisteman hezkuntzaren garrantziaz arituko dira, Hector Grad eta Haidar Eid (Al-Aqsa Gazako unibertsitateko irakaslea) . 11:00etatik 14:00etara Boikot Akademikoaren inguruan solastuko dira Agustin Velloso eta Haidar Eid. 16:30etatik 20:30etara berriz, europako unibertsitate desberdinen esperientziak izango dituzte hizpide John Bennet, Laia Haurie, Tom Hickey eta Lidón Soriano. Urretxu-Zumarragako gaztetxean berriz, Adel izango da arratsaldeko 18:00etan.

Ostirala, maiatzak 17:

-Bilboko La Bolsan, 10:00etan, Jonh Bennet-en laguntzarekin UEUn boikot akademikoa nola gauzatu azaltzeko tailerra izango da. 21:00etan, «kulturaktua» musika jaialdia izango da Adarrots, Palestinian Unit eta Maysa Daw taldeekin Bilborocken. Donostian, arratsaldeko 18:30ean Koldo Mitxelenan hitzaldia eskainiko dute Tom Hickey eta Jonh Bennet-ek.

Larunbata, Maiatzak 18: Palestina EH eguna Elizondon.

Egun osoan zehar hainbat tailer, erakusketa euskal eta palestinar dantzak, eta haurren txokoa izango da.

Honetaz gain, 11:00etan James Petras eta Adel Abou Salem-ek solasaldia egingo dute. 12:00etan Herrirarekin batera elkarretaratzea egingo da herriko plazan, «Preso Palestinarrak Etxera, Giza eskubideak, irtenbidea, bakea. Euskal Presoak Euskal Herrira» lelopean. 12:30etan ekitaldia izango da Sarearen eskutik. Ondoren bazkaria izango da eta Fermin Valencia kantaldia eskainiko du. 20:00etan Maysa Daw ren kantaldia izango da eta 22:00etan Kontzertuak izango dira Palestinian Unit (Gaza), La Jodedera (EH-Kuba), Kasu (Iruñea), Tirry & Tery taldeen eskutik.